



Toki Alai

Herri Ikastetxea Colegio Público

JANTOKIKO ARAUTEGIA



AURKIBIDEA:

Oinarri legala	2
Jangelako barne-funtzionamendurako orokortasunak	3
Jankideen eskubideak eta betebeharrak.....	4
Arau-haustek	6
Neurri zuzentzaileak	7
Plangintza ekonomikoa.....	9
Bestelakoak	10

OINARRI LEGALA:

“**Agindua**, 2000ko martxoaren 22koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetako derrigorrezko irakasmaitako eta Haur Hezkuntzako (2. zikloa) jantokiak arautzen dituena”.

2000ko martxoak 22ko Aginduak dauzka zehaztuta kudeaketa-organoen eta hurrengo langile hauen zereginak:

- * Ikastetxearen Ordezkaritza Organo Gorenari dagozkionak.OOG
- * Jantokiko batzordea .
- * Jantokiko arduraduna.
- * Sukaldeko langileak.
- * Officeko langileak.
- * Begiraleak.

2012ko ekainaren 4an,Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeak zirkularra taxutu zuen kudeaketa zuzeneko eskola -jantokietan 2012/2013 ikasturtetik aurrera aplikatzeko funtzionamendua arautzeko,goian aipatutako 2000ko martxoaren 22ko aginduak jantokiko funtzionamendua buruz landu ez zituen kontu zehatzak lantzeko.

Administrazio eta zerbitzuen sailburuordearen zirkularra,eskoletako jantokiek 2019tik aurrera nola funtzionatuko duten zehazteko.

JANGELAKO BARNE-FUNTZIONAMENDURAKO **OROKORTASUNAK.**

- Jangelako orduetan **EUSKARA** izango da erabiliko dugun hizkuntza bakarra.
- Jangela-zerbitzuan, ikasleak ezin izango dira inolaz ere ikastetxetik irten, gurasoek baimena idatziz edo pertsonalki eskatu izan ezik.
- Guztion artean elkartasuna eta errespetuz jokatzeko ahaleginak egingo ditugu, borrokak, irainak, eta eztabaidak saihestuz. Arazorik gertatuz gero, beti irtenbidea bilatu lasaitasunez hitz eginez, eta bestela, begiralearengana jo.
- Jangelan, patioan zein tailerretan eskola-orduetako arau berberak bete beharko ditugu.
- Eskolako komunitate partaide guztiak: irakasleak, begiraleak, lagunak zein eskolakideak errespetatuko ditugu eta inolaz ere ez dugu inor bultzatu, jo edo iraindu behar.
- Jatordua oso momentu egokia da giza-harremanak sustatzeko. Gure kulturari, besteekin jateak garrantzi handia du eta hori landu behar dugu txikitatik
- Ikasgeletara itzultzean, lasai sartuko gara gure atsedean garaiaz gozatu ondoren.

JANKIDEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

Eskubideak:

- Elikadura osasungarri eta orekatua jasotzea.
- Denetatik jaten ikasteko ohitura hartzea.
- Kulturaren edo osasunaren araberako elikadura salbuespenak errespetatuak izatea.
- Gizarte ohiturak hartzea.
- Bazkaritik eskolak hasi bitarteko tarteetan jarduera ludikoak eta formaziokoak egiteko aukera izatea.

Betebeharrak:

- Gainerako erabiltzaileak errespetatzea eta haiei laguntzea.
- Beste erabiltzaile batzuei kultura edo osasun arrazoiengatik ematen zaizkien menuak errespetatzea.
- Begirale eta arduradun guztiak errespetatzea eta haiekin lankidetzan ihardutea proposatzen diren jardueretan.
- Eskolako eta bazkaltzeko instalazioak, materialak eta tresnak errespetatzea.
- Elikagaiak behar bezala tratatzea.

➤ **Jangelako funtzionamendurako arauak errespetatzea:**

- a) Gelatik jangelara lasai joango naiz.
- b) Bazkal aurretik eskuak garbitu eta mahaian eseriko gara bazkaltzeko prest.
- c) Jangelan isilik sartu eta soilik beharrezkoa denean eta begiralearen baimenarekin altxatu ahal izango gara.
- d) Eskolan bazkaltzen duten ikasleek otordua osatzen duten plater guztiak probatu behintzat egin beharko dituzte. Bakoitzetik gutxieneko bat jan behar dute.
- e) Hitz egiteko ahots-tonu baxua erabiliko dugu.
- f) Janaria eta mahai-tresnak era egokian erabiliko ditugu (ez jolas egiteko), ez dugu inoiz hartuko janaria eskuekin.
- g) Patioetan erabiliko ditugun jostailuak ez ditugu aterako otordu garaian.
- h) Jangela hezkuntza-izaera duenez eta ikasleen parte-hartzea sustatzeko asmoz, 5. eta 6. mailako jankideek bigarren txandarako mahaiak prestatzen lagunduko dute.

ARAU-HAUSTEAK.

JOKABIDE DESEGOKIAK

- Ikastetxeko instalazioei, materialari edo hezkuntza komunitateko gainerako kideen gauzei narriadurak eragitea, zabarkeriagatik gertatzen denean.
- Jangelako monitoreek edo arduradunak agindutakoa ez betetzea, betiere ikasleak mespretxatzen eta iraintzen ez baditu edo diziplina nahita hausten ez badu.
- Norberaren betebeharren beste edozein ez betetze, betiere hezkuntza - komunitateko gainerako kideei beren eskubideak baliatzea galarazten , oztopatzen edo eragozten ez badie, eta jokabide hori ikastetxeko bizikidetzaren aurkako jokabide gisa edo bizikidetzaren horri kalte larria eragiten dion jokabide gisa sailkatuta ez badago.

JOKABIDE DESEGOKIEN ZUZENKETA

- ❖ *Izandako jokabide desegokiari eta haren ondorioei buruzko hausnarketa.*
- ❖ *Kaltetuak izan diren pertsonen aurrean jokabidea desegokia izan dela onartzea.*
- ❖ *Jokabide desegokiaren nolakotasunarekin zerikusia duen zereginen bat egitea.*

BIZIKIDETZAREN AURKAKO JOKABIDEAK

- Jangelako monitoreek beren eginkizunen jardunean emandako aginduak ez betetzea, betiere horrekin batera diziplinarik eza agertzen bada edo irainak.
- Ikaskideen edo hezkuntza komunitateko gainerako kideen aurkako mehatxuak edo irainak esatea.
- Ordena nahastu duten portaerak jangelan, bai bakarka bai taldean, betiere, bizikidetzaren kalte larria eragiten ez badute.
- Hezkuntza- komunitateko edozein kiderengan lesio fisikoak eragin ditzaketen objektuak zuhurtziaz gabe erabiltzea.
- Kalteak eragitea bidegabeko erabileragatik ikastetxeko lokalei, altzariei edo materialari.
- Norberaren betebeharren beste edozein ez betetzea, betiere hezkuntza komunitateko gainerako kideei beren eskubideak baliatzea galarazten , oztopatzen edo eragozten ez badie, eta jokabide hori ikastetxeko bizikidetzaren aurkako jokabide gisa edo bizikidetzaren horri kalte larria eragiten dion jokabide gisa sailkatuta ez badago.

BIZIKIDETZAREN AURKAKO JOKABIDEEN ZUZENKETA

- ❖ *Bizikidetzaren aurkako jokabideari eta haren ondorioei buruzko hausnarketa eta jokabidea bideratzeko orientazioak.*
- ❖ *Idatzizko ohartarazpena.*
- ❖ *Lan hezigarri edo eragindako kale materialak konpontzeko lagungarriak diren zereginak egitea.*
- ❖ *Jangelako zerbitzua jasotzeko eskubidea etetea, harik eta ikaslearen gurasoekin edo lege-ordezkariekin elkarrizketa bat egiten den arte. Eskubide-etendura horrek ezingo du hiru egun baino gehiago iraun.*

BIZIKIDETZARI KALTE LARRIA ERAGITEN DIOTEN JOKABIDEAK

- Diziplinarik ezako egintza edo obedientzia ukatze esplizitu guztiak eta bai monitoreen bai arduradunaren aurkako adierazpen oso laidogarri edo iraingarriak.
- Hezkuntza-komunitateko edozein kideren aurkako eraso fisikoa.
- Liskar edo jokabide erasokorrak eragitea edo jokabide horietan parte hartzea, betiere lesioak eragiteko arrisku larria sortzen bada.
- Nahita kalteak eragitea ikastetxearen instalazioetan edo ondasunetan, ikastetxeko langileei, beste ikasle batzuei, bai bakarka, bai taldean.

BIZIKIDETZARI KALTE LARRIA ERAGITEN DIOTEN JOKABIDEEN ZUZENKETA.

Jangela-zerbitzua erabiltzeko eskubidea etetea, gehienez ere zuzendu beharreko jokabidea egin den hiruhilekoa amaitu arte, edo, jokabide hori hiruhileko akademikoaren azken hilabetean gertatu bada, hurrengo hiruhilekoa amaitu arte.

Zuzendariak jangelako arduradunarekin batera erabakiko dute jangela zerbitzua erabiltzeko eskubidea zenbat denborako tartea etengo zaion.

PLANGINTZA EKONOMIKOA: ORDAINAGIRIAK

- Ikasturtearen hasieran, Hezkuntza Sailak jarritako kuotak aplikatuko dira.
- Urteko jangelako kostua zenbatekoa den jakiteko, eguneroko kostua eta jangela egunez biderkatuko da.
- Ordainagiri bakoitzaren zenbatekoa jakiteko, urteko kostua zati bederatzi egingo da. Beraz, 9 ordainagiri berdin pasatuko dira.
- Ordainagiriak, jangela zerbitzua eskaintzen den hilabete bereko 10 egunean pasako dira.
- Aurreko ikasturteko bekadunei ez zaie kuotarik kobratuko. Gero, beka eman ezean, lehen bait lehen eskolarekin harremanetan jarri beharko dira ordainketak nola egin zehazteko.
- Bekadun berriei, beka jaso eta gero, ordaindutakoa itzuliko zaie.
- Aste batean jarraian huts eginez gero eta aldez aurretik idatziz abisaturik, egun horietako kuotaren erdia itzuliko zaizue.
- Ikasle bazkaltiarrek Hezkuntza Sailaren jangelarako beka jasotzen badu, ezin zaio inola ere itzulketarik egin.

ERABILTZAILE IZAERA GALTZEA.

- Norbaitek aurreko ikasturteko jangelarekiko zorrak baditu, ezin izango du zerbitzua erabili zorrak kitatu arte.
- Jangelako bi ordainagiri ordaintzeke edukiz gero, ezin izango du jangela zerbitzua erabili, horrela adostuta zelako Ordezkaritza- Organo Gorenean.
- Jateari uko egiteak jangelako eskubidearen galera ekar dezake.

BESTELAKOAK:

MENU MOTAK ETA DIETAK

1. Menu basala
2. Txerrikirik gabeko menua.
3. Arrautza-esneki-barazkien menua
4. Arrautza-esneki-barazki eta arraien menua
5. Nutrizio-premia berezitarako dietak: Intolerantziak, alergiak eta dieta bidezko tratamendu espezifikoak daukaten patologietarako dietak.

Zerbitzua esleipendun zaion enpresari dieta bereziak eskatzeko zer behar den:

- Gurasoen edo tutoreen eskaera (komentsalaren fitxa)
- Especialistaren txosten mediko ofiziala.
- Nahi gabe jatea gertatuz gero ,zer egin jakiteko protokoloa.

BOTIKAK

Eskolako protokoloa jarraituko da.

BEGIRALEEKIN HARREMANAK:

- Zuen seme-alabekin arazoren bat izanez gero, jantokiko arduradunak deituko dizuegu.
- Arbes eta Palmerako arduradunarekin harremanetan jartzeko 12:30etik 15:00 arte dei egin dezakezue **943636743** telefonora.
- Siuseko arduradunarekin, 12:30etik 15:00ak arte **943622837** telefonora.

INFORMEAK

Zurteko hurrek jankidearen segimendu txostena eramango dute egunero. Gainontzeko ikasleei Hiruhileko bakoitzaren bukaeran banatuko zaie txostena.

BAZKALONDOKO LOALDIA.:

- Bi eta Hiru urteko ikasleek lo kuluxka egingo dute.

EGUN BAT EDO GEHIAGOKO IRTERAK

Jangelako ikasle batek ez badu jangelako zerbitzua erabili behar eskolako ekintza batengatik, eguneko kuotaren erdia bueltatuko zaie.

Bekadunei ez zaie bueltatuko.

ASTEAZKENETAN :

- 2 urteko ikasleak asteazkenetan arratsaldeko ordu bietan aterako dira. Gainontzeko ikasleak Ordu-bi eta erditan. Garraio zerbitzua erabiltzen ez duten ikasleen bila etorri beharko duzue.

ALTAK , BAJAK ETA JANTOKIKO PLAZAK KUDEATZEA

Jantokiko plazak lehentasunezko hurrenkera honen arabera esleituko dira.

1-Lehenik eta behin jantokira asteen 4tan baino gehiago joango diren ohiko jankideak. Aldi berean ,lehentasunaren arabera,hurrenkera hau jarriko da:

Garraioa erabiltzeko eskubidea duten ikasleak.

Ikasle bekadunak.

Gainerako ikasleak.

Ohiko jankideak

Jantokiko zerbitzua ikasturte osorako eskatu duten ikasleak, gutxienez asteen behin joaten direnak.

Tartekako ohiko jankideak

Banatutako guraso-zaintza edukitzeagatik edo guraso edo tutoreen lanagatik agian kurtso osoan, astez edo hilez hil txandaka ibili daitezkeen ikasleak.

Noizbehinkako jankideak

Aurreko sailkapenetatik kanpo geratzen diren ikasleak.

- Behin jangelan izen emate epea bukatutakoan, ikasleren batek jangelan izena eman nahi badu, bere kuota noizbehinkakoarena izango da. Kontutan izan, honelako kasuan onartu ahal izango dela, administrazioak jarritako zaintzaileren ratio bete arte.
- Jangelan baja eman ondoren, berriro zerbitzua erabili ezker bere kuota noizbehinkakoarena izango da.

JANGELAKO ARDURADUNAK:

- *Maite Erasun Siuseko* antolakuntza eta ekonomia kudeaketa arduraduna
- *Begoña Arroyo Arbes eta Palmera* antolakuntza arduraduna.

JANGELA BATZORDEA:

- * *Maite Erasun* (jangelako arduradunak).
- * Nagore Zapirain (gurasoen ordezkaria).
- * Rosa Nieto (gurasoen ordezkaria).
- * Ander Errazkin (irakaslea)
- * *Ana Martinez de Iturrate* (zuzendaria).

Eskola Kontseiluak onartua, Irunen, 2019ko urriaren 28an